

LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3



## IKASGAIA

Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza

## GAI EKOSOZIALAK

- Ekodependentzia
- Biosferaren funtzionamendua
- Aldaketa ekosozialeko eragileak

## INGURUMEN-POLITIKAK

- Hondakinak
- Kontsumoa
- Biodibertsitatea
- Ohitura jasangarriak
- Aldaketa klimatikoa

## Ikas egoeraren markoa

**TESTUINGURUA.** Urdaibai biosfera erreserbak hainbat altxor natural ditu. Betidanik egin dugu inguruaren erabilera, jada paleolitoan ere lehen gizakia hemen bizi zan.

## Abiapuntua

*Nolako zer paleolito garaian Urdaibaiko inguru? Nola erabiltzen zituzten paleolitoko lehen gizakiek inguruak eskaintzen zizkieten baliabideak? Gaur egun erlazio hau hobera edo txarrera egin du?*

**AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA.** Ikaskuntza esperientzian zehar egindako jardueri esker, ikasleak naturatik hurbilago egongo dira eta natura zaintzeko hainbat tresna ezagutu eta erabili ahal izango dituzte.



## HELBURU KONPETENZIALAK

- Oinarrizko jakintzak eskuratzea, Urdaibaiko ingurune naturaletan bizitako esperientzia esanguratsuen bidez, ikasleen pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzeko jasangarritasun irizpideen arabera.
- Denboran zehar, eta aro ezberdinetako izaki bizidun ezberdinak aztertu, biodibertsitatea inguruaren baldintzen arabera dela ulertzeko.
- Animalia eta landareen Biodibertsitatea zaintzeko habitatei eusteko garrantziaren inguruan kontzientzia hartu eta sentsibilizatzea.
- Urdaibai bezalako ingurune babestuak mantentzeko beharrez kontzientziaztea, Euskadiko Biodibertsitateari eusteko ingurune ardatz gisa.
- Biodibertsitatearen erabilerak denboran zehar ezagutu, oso garrantzitsua dela ulertzeko.

## Curriculumaren zehaztapenak


## NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ONINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE1 STEM KD KE KPSII	1,2,3 1,2 4 1,2,3,4,5 3 5	<b>1. Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka bai taldean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.</b>	1.2. Bi iturritatik baino gehiagotatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta antolatzea, banaka eta taldean, modu planifikatuan eta pixkanaka autonomoan, fidagarritasuna ebaluatuz, oinarrizko hiztegi zientifikoa eskuratuz eta eraginkortasunez komunikatuz, zereginaren helburuen arabera.  1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren beharren eta hezkuntza testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modu eraginkor eta kritikoan, eta erabilera seguru eta iraunkorrekohiturak hartzea.	<b>B. Teknologia eta digitalizazioa</b> <b>1. Ikaskuntza ingurune pertsonala digitalizatzea:</b> – Datuak biltzeko, biltegitzeko eta irudikatzeneko estrategiak, haiek errazago ulertzeko eta aztertzeko. 
HKK KE STEM KD KPSII HK EK	1,2,3 1,2 1,2,4 1,2 4,5 4 1,3	<b>2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabilia, eta jakintza desberdinak elkarrekin konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturealean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.</b>	2.2. Natura, gizarte edo kultura ingurunearekin zerikusia duten gaiei buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak aztertu eta interpretatuz, izan daitezkeen irtenbideen koherentzia baloratuz eta egindako iragarpenekin alderatuz.	<b>A. Kultura zientifikoa</b> <b>1. Jarduera zientifikorako hastapenak:</b> – Ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuetan informazioa bilatzeko, hautatzeko, antolatzeneko eta zabaltzeko estrategiak, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, modu kooperatiboan, banaka eta/edo taldean, informazio horren egokitasuna eta fidagarritasuna baloratuta eta erabilitakohiturri egiletza aipatuta.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5 1 4 1,4 1 1,2	<b>5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeo elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.</b>	5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeo elementuen arteko konexio errazak egitea, eta elementu horien artean sortzen diren harremanak ulertzea.  5.4. Natura eta kultura ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak balioestea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatzen dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	<b>C. Gizartea eta lurraldeak</b> <b>2. Gizarteak denboran zehar:</b> – Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.  <b>4. Kontzientzia ekosoziala</b> – Garapen jasangarria. Giza jarduera espazioen gainean eta baliabideen ustiapena. Jarduera ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa: gizarte- eta eskualde-desberdintasuna munduan eta Espainian. Garapen Jasangarrirako Helburuak. – Bizitza jasangarria: planetaren gehienezko mugak eta baliabideen agortzea. Aztarna eta zor ekologikoa.

LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3

FUNTZ. KONP	DESK.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5 2,3,5 4, 1,2,3,4 1,2,3 1.	<b>6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrek praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.</b>	6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuta, eta problemak identifikatuta. Bizitza jasangarriaren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko. 6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak emanda.	<b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>4. Kontzientzia ekosoziala</b> – Klima-aldaketa tokikotik globalera: kausak eta ondorioak. Arintzeko eta egokitzeko neurriak. – Erantzukizun ekosoziala. Pertsonen, gizartearen eta naturaren arteko erlazioak eta ekomendetasuna. Enpresen erantzukizun sozial eta ekologikoa. – Eredu ekonomiko berria bat: ekonomia berdea/zirkularra. Garapen jasangarriantz. Ondasunetako, finantzetako eta laneko merkatuen eragina herritarren bizitzan eta ekosistemetan (estraktibismoa). Eragile ekonomikoak eta lan-eskubideak genero-ikuspegitik (ekofeminismoa). Zergen balio soziala. Enpresen gizarte- eta ingurumen-erantzukizuna. Publizitatea, kontsumo arduratsua (beharrak eta nahiak) eta kontsumitzailearen eskubideak.
HKK KE STEM4 KD KPSII4 HK KAKK1	1,2,3 1,2 4 1,4,5 4 1,2,3 1	<b>7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.</b>	7.1. Erdi Arotik gaur egunera bitarteko natura-, gizarte- eta kultura-inguruneke elementuen arteko kausalitate-, aldiberekotasun eta jarraitutasun-erlazioak aztertzea, gertakari eta pertsona garrantzitsuak ardatz kronologikoetan kokatuta eta historiaren hainbat garaitako gizarte-ezaugarri esanguratsuak identifikatuta.	<b>C. Gizarteak eta lurraldeak</b> <b>2. Gizarteak denboran zehar:</b> – Natura- eta kultura-ondarea ondasun eta baliabide gisa; haren erabilera, zaintza eta kontserbazioa.



LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3

## Ikuspegi ekosoziala

## IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- \* 1. Giza ekodependentzia barnertzea. Bizitzaren sarearen parte garela ohartzea.
- \* 2. Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekozentzismora igarotzea.
- \* 3. Biosfera (eta gizarteak), sistema konplexu gisa, funtzionamendu ez-linealak, kausa anitzekoak eta berrelikadura-begiztak dituztenak arautzen dituela ulertzea.
- \* 4. Lurreko biziaren funtzionamenduaren oinarriak ezagutzeko: zikloak ixtea, eguzki-energia erabiltzea, aniztasuna areagotzea eta lankidetzak maximatzea.
- \* 6. Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

- \* Izaki bizidun guztiak elkarrekin lotuta daudela onartzea.
- \* Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea / Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar ez dituela ez adieraztea.
- \* Bizitza osoari balioa ematea.
- \* Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- \* Bizitza osoaren babesari balio handia ematea, kulturalki arbuiztzen gaituena barne (ornogabeak, adibidez).
- \* Ekosistemen, klimaren eta/edo gizartearen funtzionamendu ez-linealaren adibideren bat ematea.
- \* Azaldu Lurreko elementuak behin eta berriz berrerabiliko ez balira bizitza ez litzatekeela posible izango.
- \* Espezie jakin batzuen arteko lehiatik haratago, bizitza osoa oso antolatua, koordinatua eta lankidetzak dela erakustea.
- \* Klima-aldaketa, energia- eta material-krisia eta biodibertsitatearen galera inpaktu sozialak dituzten arazo gisa identifikatzea.
- \* Planeta finitu batean ezerk mugarik gabe haztea ezinezkoa dela adieraztea.

## OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- \* Ekodependentzia kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren baliabiderik gabe.
- \* Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- \* Natura zaintzearen garrantzia.
- \* Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.
- \* Naturarekiko konexio emozionala.
- \* Ekosistema bateko zatien elkarrekin: ingurune fisikoko faktoreak, izaki bizidunak, klima, etab. Adibidez, basoen eta klimaren arteko erlazioa eta uraren zikloa.
- \* Gure ekintzak beste pertsona, izaki bizidun eta lekuetan dituzten eraginak edo inplikazioak.
- \* Biodibertsitatea eta interkonexioak maximatzea, bizitzaren segurtasunerako oinarriko mekanismo gisa.
- \* Espezieen arteko lankidetzak, Lurreko baliabide mugatuak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta bizitza osoa zabaltzeko.
- \* Klima-aldaketa, energia- eta material-krisia eta biodibertsitatearen galera, inpaktu sozialak dituzten arazo gisa.
- \* Baliabide finituen planeta batean etengabe hazteko ezintasunaren balorazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren konpetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.



LH. 5, 6

SAIOAK: Aurretik 2-3 / Ekoetxea 1 / Ondoren 2-3

## Metodologia



## ESTRATEGIA

Araoetan oinarritutako ikaskuntza  
Zereginetan oinarritutako ikaskuntza  
Gogoetan oinarritutako ikaskuntza  
Beste batzuk



## ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ikuspegi sozioafektiboa  
Ekintzarako ikaskuntza  
Ikaskuntza aktiboa



## TEKNIKAK

**OHIKOAK:**  
Digitalak  
Tailerrak  
Ikus-entzunezkoak  
Entzute kolektiboa  
Azalpenak talde handietan  
Beste batzuk

**EZOHIKOAK:**  
Beste batzuk:  
Interpretazio zentroa

